



Eraldatzen

PROGRAMA-KONTRATUA, UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA EMATEN DUTEN HEZKUNTZA SAILAREN MENDEKO IKASTETXE PUBLIKOENTZAT (2021-2024)

HEZKUNTZA SAILBURUORDETTA
HEZKUNTZA SAILA



1. SARRERA	2
2. ERALDATZEN PROGRAMAREN DEFINIZIOA	7
3. PROGRAMAREN HARTZAILE DIREN IKASTETXEAK	8
4. JARDUKETA-ESPARRUAK	9
5. ERALDATZEN PROGRAMAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK JARDUKETA- ESPARRUKA.....	10
6. PROGRAMA-KONTRATUAREN EZAUGARRIAK ETA GARAPENA	13
7. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	16
8. ALDERDIEN KONPROMISOAK	21
I. eranskina. Programa-kontratuaren akordio-eredua	23
II. eranskina. Palanka-jarduerak.....	25



SARRERA

EAEko hezkuntzak, bere inklusio-politiken bidez, rol eraldatzailea izan du azken hamarkadetan, euskal hezkuntza-sistema osoaren ondasun komuna eta partekatua izateraino. Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeak hezkuntza formalerako testuingurua eman zigun. Testuinguru horrek aurrera egin du eta gure hezkuntza-sistema etengabe hobetzen lagundu du bere hastapenetatik. Hala ere, azken hamarkadetako gizarte-aldaketa etengabeek aurre egin beharreko errealitate berrien aurrean jartzen gaituzte, eta hezkuntza-erronkak barneratzeko agertoki berri bat eta tresna berriak diseinatzeko premiaren aurrean: ikastetxeen soziologia aldatu duten migrazio-fluxuak; kulturartekotasun eta aniztasun berria gure ikastetxeetan; eskari berriak familien aldetik; ikasleak eta konpetentzien garapena ardatz dituen ikaskuntza; erronka demografikoa; eta mehatxuak eta aukerak gero eta teknologikoagoa den ingurune baten. Horrek guztiak behartu egiten gaitu Administrazioaren aldetik eta ikastetxeen aldetik rol berriak berraztertzerara. Bada garaia ikastetxeari protagonismo handiagoa emateko eta Administrazioaren eta ikastetxeen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko.

Gaur egungo eta datozen hamarkadetako erronkei erantzuteko, beharrezkoa da gure sisteman gobernantza-eredu berriak sustatzea: eredu erantzunkide eta deszentralizatuagoa, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa sustatuko duena, hezkuntza-proiektu komunitarioak bultzatuta; hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola-erakunde berriak konfiguratuko dituen; eta ikasle guztien ikaskuntza sustatuko duena eta haiek beren ikaskuntzaren subjektu aktibo bihurtuko dituen.

Era berean, uste osoa dugu irakaskuntzak kalitatea irabaziko duela gaur egungoak baino ahalmen handiagoak izango dituzten ikastetxeekin. Ahalmen handiagoa izan behar dute beren antolaketa, jarduera pedagogikoa, kudeaketa ekonomiko-finantzarioko jarduera eta langileak kudeatzeko jarduera autorregulatzeko. Horretarako, saiatu behar dute oreka bilatzen ikastetxe horientzako ahalik eta autonomia handienaren eta Administrazioak haien ganean izan behar duen koordinazio eta kontrolaren artean; izan ere, Administrazioa baita beharrezkoak direngutxieneko batzuen berme-emailea, eskola publikoak dituen helburu orokorrak sistema osorako lor daitezzen ahalbidetzeko.

1998ko uztailaren 30eko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen ditu, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat. Bada, agindu horren 6. artikuluan zehaztu egiten dira ingurune behartsuetan dauden ikastetxeetarako esku-hartze globaleko proiektuak, hala nola antolamenduaren, curriculumaren eta



tutoretzaren arloetan eragina izango duten jarduketak. Gainera, jarduketa horiek ikastetxeen beraien ekimenez **edo Hezkuntza Administrazioak** ikastetxe jakin bati **proposatuta** landu ahal izango dira. Hala, **erantzuna eman behar zaion egoera jakin bat behin antzemanaz gero, bultzatu egingo da ikastetxeak plangintzan eta esku-hartzean liderraren eginkizuna bere gain har dezan.**

Testuinguru arauemaile horretan sortu zen *Hamaika Esku* programa, ekimen instituzional gisa, honako helburu honekin: gizartean, ekonomian eta kulturen desabantailan dauden ikasleen emaitzak hobetzen laguntzea eta, era berean, kanpoko ebaluazioetan (Pisan, EDan) lortutako emaitzetan hasierako mailan daudenen ehunekoa murrizten laguntzea.

Hamaika Esku programa 2014an hasi zen eta 2020an amaitu du bere bigarren aldia. Dena den, 2021era arte luzatu da Covid19a dela eta. Bi aldi horietan, programan parte hartu duten 63 ikastetxeetan hainbat jarduketa-ildo landu dira: ikasleen arreta eta jarraipena, irakaskuntza-jardunbidea, familien eta eskolaren arteko lankidetzak, hizkuntza-kompetentzia, matematika-kompetentzia, eta baliabideen plangintza, antolaketa eta kudeaketa eraginkorra, *Hamaika Esku 2017-2020 programaren bigarren aldia* EAEko ikastetxe publikoetan antolatzeari buruzko Hezkuntzako sailburuordearen *Ebazpenean* ezarritakoaren arabera. Programa horrek, Berritzeguneko eta Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulariekin lankidetzan, lortu egin du ikastetxeek hiru ikasturterako plangintza estrategiko bat egitea. Plangintza horretan jasota zeuden abiapuntuko egoeraren hasierako diagnostikoa, aurreikusitako jarduketa-ildoei lotutako helburuak eta ezarritako aldiaren amaierako lorpen-adierazleak.

Ikastetxeek *Hamaika Esku* programa aplikatu duten bi aldietan sistematikoki bildu diren datuetatik ateratako ondorio esanguratsuenek adierazten dute, besteak beste, ikastetxe horiek: epe labur eta ertainean plan estrategikoak egiteko kultura garatu dutela; zuzendaritza-talde egonkorren kopurua handitu dutela; baliabideen kudeaketa eraginkorra hobetu izana egiaztatu dutela; eskola-emaitzetan hobekuntza bat finkatu dutela; eta, azkenik, eskola-giroa eta ikasleengan ikasteko motibazioa hobetu dituztela, bizikidetzak positiboak eta horren aurkako egoeren murrizketak bultzatuta.

Illo horretatik, *Hezkuntza Eredu Pedagogikoaren Markoak* hezkuntza inklusiboaren aldeko apustu garbia egiten du, ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza ekitatiboa lortzen laguntzeko jarrera eta konpromiso gisa. Ardatz hartzen ditu ikasle guztien presentzia, benetako parte-hartzea eta baloratutako emaitzetan izandako lorpena. Gainera, edozein motatako bazterketari aurre egitea dakar berekin, eta, era berean, inoiz bukatutzat ematen ez den prozesutzat hartzen da.

Orobat, nabarmentzen du ikastetxeen autonomia areagotzea hezkuntza hobetzeko esparruetako bat dela, eta baldintza erabakigarria dela ikasleen hezkuntza-premiei eta eskari eta asmo kolektiboari erantzuteko proiektu propioak garatu ahal izateko.



Horretarako, beharrezkoa da ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektua zehaztea eta proiektua garatzeko eta ebaluatzeko ahalmena izatea, familien iritzia ere kontuan hartuta.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen V. tituluan eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren V. tituluko 2. kapituluan aurreikusitakoa berreskuratzeko, *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak* adierazten duenez, ikastetxeen autonomiak barne hartzen du erabakiak hartzeko ahalmena, bai pedagogiaren eta curriculumaren esparruan, bai plangintzaren, antolaketaren eta kudeaketaren esparruan, beren testuinguruko beharren eta eskarien arabera. Autonomia hori posible da beharrezkoak diren baliabideak edukitzeko ahalmena dagoen heinean, eta ikasleen premien eta beren inguruneko eskarien arabera beren helburuak lortzeko modurik egokienean baliabide horiek antolatu eta banatzeko ahalmena dagoen heinean. Autonomia horrekin batera, ikastetxeak funtzionatu behar du eta hezkuntza-sistema baten barruan sartu behar du. Helburu eta arau komunak ikastetxeen beharrezko autonomia pedagogikoarekin eta kudeaketa-autonomiarekin konbinatzeko gai den lege-esparru bat egoteak, ordainetan, behartu egiten du ebaluatzeko eta kontuak emateko mekanismoak ezartzera. Hezkuntza-sistemak dituen erronken garrantziak, ordainetan, informazio publikoa eta gardena eskatzen du ikastetxeen eskura jarritako bitartekoen eta baliabideen erabilerari dagokionez, baita horiekin lortzen diren emaitzen balorazioari dagokionez ere.

Eskola inklusiboa garatzeko 2019-2022 esparru-planak honela definitzen du eskola inklusiboa: ikasle guztiek, kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera izateaz gainera, bizitzarako konpetentzien garapen-maila handiena lor dezaten ere bermatzen duena. Haur bakoitzari modu pertsonalizatuan erantzuteak, planteamendu inklusiboetatik abiatuta, eskatzen du ikasle guztiei erantzungo dieten estrategiak bultzatzea, baita garapen pertsonala eta akademikoa mugatu dezaketen oztopoak ezabatzea ere. Horrek berekin dakar eskolaren egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoak nabarmen aldatzea. Esan bezala, helburua da guztiek arrakasta izatea beren ikaskuntzan, eta modu ekitatiboan parte hartzea.

Era berean, plan horretan jasotako helburuen artean azpimarratzen da, alde batetik, ikastetxeak ikasleekiko hezkuntza-arloko kudeaketan eta esku-hartzean duen autonomia eta erantzukizuna sustatu behar dela. Hausnarketa eta ekintzako eta prestakuntzako etengabeko prozesu baten ondoren bakarrik, ebidentzietan oinarritutako hezkuntzaren fokuari pean, egin ahal izango da egokitzapen hori eta jardunbide egoki bihurtu. Bestalde, hezkuntza-komunitateak ikasle guztien arrakastan duen zeregina modu eraginkorrean onar dadin lortu nahi da, baita haien ongizate psikosoziala lortzen laguntzen duten sistemekiko interakzioa bete-betean susta dadin ere.



Azken batean, euskal hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzen lagunduko du bikaintasunerantz aurrera egingo duen eta ikastetxe publikoei autonomia handiagoa emango dien eskola inklusiboa, ekitatiboa eta berritzailea lortzeak eta eraldaketarako eragile nagusi gisa irakasleen zeregina indartzeak.

Europar Batasuneko Kontseiluaren 2021/C/66/01 Ebazpenean, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan Europako lankidetzarako esparru estrategikoari buruzkoan (2021-2030), hurrengo hamarkadarako lehentasun estrategiko gisa ezartzen da hezkuntzan eta prestakuntzan kalitatea, ekitatea, inklusioa eta arrakasta hobetzea denentzat.

EBrentzat, hezkuntzan eta prestakuntzan kalitatea lortzearen ikuspegitik, funtsezko kompetentziak menderatzea (oinarrizko trebetasunak barne) funtsezko oinarria da etorkizunean arrakasta izateko, kualifikazio eta motibazio handiko irakasle eta hezitzaileen eta hezkuntzako beste profesional batzuen laguntzaz. Hezkuntza goiz uzteak herritarren aukera sozioekonomikoak murriztea dakar. Adierazle hori azken hamarkadan murriztu bada ere, Hezkuntza Administrazioentzat erronka izaten jarraitzen du, batez ere COVID-19aren pandemiaren ondorioak dagoeneko antzematen hasi garenean. Horrenbestez, ahaleginak egiten jarraitu behar dugu hezkuntza goiz uztea murrizteko eta gazte gehiagok Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko kualifikazioa lortzeko. Bestalde, hezkuntza-sistemak emaitzak hobetzeko gai izan diren arren, oraindik identifikatu gabe daude ikasle guztien hezkuntza-arrakasta sustatzen duten politikak. Hortaz, neurriak hartu behar dira egoera zaurgarrian dauden ikasleen prestakuntza eta eskola-arrakasta bermatzeko, zentzu globalean eta etengabeko ikaskuntzaren ikuspegitik.

Azken hamarkadetan, euskal hezkuntzak aurrera egin du, zalantzarik gabeko lorpenekin, herrialde garatuen batez bestekoaren oso gaintik jartzen gaituzten eta sistema hobetzen lagundu duten adierazleetan: eskola goiz uztea Europako % 6ko batez bestekoaren azpitik dagoen eskola-uzte goiztiarra; eskolatze goiztiarraren % 92ko tasa edo % 86ko graduazio-tasa. Hala ere, konplexutasun handiko inguruneetako emaitza akademikoen adierazleek erronka bat dakarte ikastetxeentzat eta Administrazioarentzat berarentzat.

Hezkuntza-sistemaren malgutasunaren ondorioz, ikastetxeei autonomia-espazio propioa ematen zaie. Ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza emateko eskakizunak (interesa, ezaugarri eta egoera pertsonal aitzak kontuan hartuta) behartu egiten du ikastetxeei beren antolaketan zein funtzionamenduan eragina duen erabakitzeke ahalmena aitortzera.

Testuinguru horretan, eta zehatzago esanda, lehen aipatu bezala, *Hamaika Esku* programak bere indarraldi-zikloa amaitu du. Hori dela eta, **Eraldatzen** programa berria ezartzea proposatzen dugu. **Programa horren helburu orokorra da hezkuntza-arrakasta sustatzea, ikasleen garapen pertsonal eta sozial ahalik**



eta handiena lortzen laguntzeko baliabide gisa. Horretarako, proiektu estrategiko bat ezarri eta egikarituko da. Proiektu hori ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin duen erantzunkidetasun-kontratuan (programa-kontratuan) islatuko da.

Programa-kontratu horren esparruan ikastetxeek egiten dituzten hobekuntza-plan estrategikoetan, bildu egingo dira familien parte-hartzea, ikastetxeetako bizikidetzaren positiboa, hezkuntza inklusiboa eta konpetentziarako ikaskuntzaren euskarri izango den berrikuntza metodologikoa sustatzearekin lotutako jarduketak.

Gainera, ikastetxeen autonomia pedagogikoa, antolamendukoa eta langileen kudeaketakoa eta kudeaketa ekonomikokoa uztartzea eskatzen du, eta Hezkuntza Sailaren betebeharra izango da hezkuntza-jardunbideak bideratzea ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza emateko.

Era berean, programa honek etorkizuneko jarduketa-esparru bat zehazten lagunduko digu. Esparru horren helburua izango da ikastetxeek beren **autonomia baliatzea** ahalbidetuko duten oinarriak zehaztea, zuzendaritza-proiektuaren bidez beren hezkuntza-proiektu artikulatua ardatz hartuta, beste tresna batzuen artean.

Esparru horretan bertan, *Eraldatzen* programak erreferentziazko tresna bihurtu nahi du, ikastetxeen eta Hezkuntza Administrazioaren artean **erantzunkidetasun-akordioak** aplikatuta, hezkuntza-proiektuak garatzeko helburuarekin, eta akordio horiek aplikatuta lortutako emaitzen berri eskola-komunitateari eta Administrazioari emateko konpromisoarekin.



Eraldatzen PROGRAMAREN DEFINIZIOA

Hautatutako ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren artean garatu beharreko PROGRAMA-KONTRATUA da, eta helburu du **eskola-arrakasta eta bizitzarako konpetentzien garapen-maila hobetzea, planteamendu inklusibo batetik ikasleekin esku hartuta.**

Programa horrek modu globalean eragiten du ikastetxeen funtzionamenduan, hautatutako ikastetxe bakoitzaren eta Hezkuntza Sailaren artean kontratu bat sinatu ondoren. Kontratu horretan, alderdi bakoitzak programaren helburuak lortzeko bere gain hartutako konpromisoak zehazten dira (ikus I. eranskina).

Ikastetxeek beren baliabideak antolatzeko duten autonomian eta haien kudeaketari erantzuteko ahalmenean oinarritzen da, eta haiek Administrazioaren laguntza izango dute beste hezkuntza-eredu baterantz aldatzeko prozesuan zehar. Hezkuntza-eredu horrek ikasle guztien garapen integrala sustatuko du, planteamendu inklusibo eta konpetentzial batetik, Hezkuntza Administrazioaren laguntzaz eta babesaz.

Programaren helburua da ikasle guztiek beren prestakuntza-prozesua arrakastaz amaitzea, ez bakarrik akademikoki, baita pertsonalki ere, beren konpetentziak ahalik eta gehien gara ditzaten. Hori guztia egingo da ikastetxeek pixkanaka eta modu arduratsuan beren autonomia pedagogikoa, antolamendukoa eta kudeaketakoa beren gain hartzea ahalbidetuko duen esparru batean, egungo gizartearen premietara eta ezaugarrietara egokituko den hezkuntza-sistema baterantz aurrera egiteko, ikasle guztien inklusioa, berdintasuna, ekitatea eta hezkuntza-kalitatea sustatuta.



P PROGRAMAREN HARTZAILE DIREN IKASTETXEAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak dira hartzaileak, baldin eta aintzat hartutako etapa guztiak edo horien parte bat ematen badituzte, kontuan izanda, besteak beste: **hezkuntza-konplexutasunaren indizea**¹, ikasleen tipologia, plantillak egonkortzeko eta/edo profilatzeko beharra, hezkuntza-proiektuen hobekuntza (beren ingurunerako erakargarriagoak izan daitezten)...

I. eranskinean jasotako programa-kontratuaren eredia oinarri hartuta gauzatuko da Ikastetxeko zuzendaritzaren eta Hezkuntza Sailburuordetzaren arteko akordioa (lehen hezkuntza-komunitatearen ordezkari gisa eta bigarrena Hezkuntza Sailaren ordezkari gisa).

Ikastetxeek beren borondatez parte hartuko dute programa-kontratuan; baina, nolana ere, honako hauek izan beharko dituzte:

- **Irakasleen klaustroaren gutxienez % 60ren konpromisoa.**
- **Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren parte hartzeko onarpena.**

¹ **Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI):** ikastetxearen konplexutasun-maila identifikatzen duen indizea, testuinguruaren inguruabar espezifikoaren arabera, hezkuntza-errealitatearekin lotutako aldagai batzuk bilduta. HKIaren azken balioa honako aldagai hauek haztatuta kalkulatu da:

1. Oinarrizko 5 kompetentzien kalifikazioetan ikastetxeak berak emandako emaitzen hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoaren batez bestekoa (0-4 arteko puntuazioak).
2. Ebaluazio diagnostikoko proban galdetegia osatu zuten ikasleek lortutako ikastetxeko ISEKa.
3. Ikastetxean errepikatzen duten ikasleen ehunekoak (EJDaren datuak).
4. Ikastetxean material-beka duten ikasleen ehunekoak.
5. Jatorri migratzailea duten ikasleak.
6. Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak (HLPE) dituzten ikasleen ehunekoak.
7. Ikasleek ikastetxean duten jarraitutasun-maila.
8. Ebaluazio diagnostikoan, oinarrizko 5 kompetentzietan, ikastetxearen emaitzetan hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoaren batez bestekoa.
9. Curriculum-aniztasunean dauden ikasleen ehunekoak (DBH).



J ARDUKETA-ESPARRUAK

Eraldatzen programa **lau jarduketa-esparruren** inguruan egituratzen da, eta ikastetxeek beren ekintzak euren hobekuntza-plan estrategikoan ardatzu beharko dituzte.

1. **Egoera zaurgarrian dauden ikasleak:** Ikasleen gutxieneko hezigarritasun-baldintzak bermatzea. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntzea.
2. **Erakundearen jarrerak:** Ikastetxean jarrera positiboak garatzea.
3. **Irakasteko/ikasteko prozesuak:** irakasteko/ikasteko prozesua hobetzea, etengabeko hobekuntzan eragiteko..
4. **Ikastetxea eta Hezkuntza Administrazioa:** Ikastetxea antolatzeko eta kudeatzeko modu berriak aplikatzea, ikasle guztien hezkuntza-arrakasta hobetzera bideratuta.

Jarduketa-esparru horiek bat datoz Hezkuntza Sailburuordetzaren lehentasunezko 5 ardatzekin:

1. **Lidergoa.**
2. **Digitalizazioa, eraldaketarako eta ikaskuntzarako palanka gisa.**
3. **Inklusioa eta bikaintasuna.**
4. **Konpetentzien ikuspegia ikasleen garapen osoa lortzeko.**
5. **Testuinguruaren beharretara egokitutako eleaniztasuna, euskara ardatz nagusi dela.**



E RALDATZEN PROGRAMAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK JARDUKETA-ESPARRUKA

1. Helburu espezifikoak honako hauek dira:

EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN IKASLEAK jarduketa-esparruarekin lotutako helburuak:

- Ikaskuntzaren eskola-emaitzak hobetzea konpetentzia-esparruaren barruan.
- Ikasturtea promozionatzen ez duten ikasleen kopurua murriztea.
- Hautemate goiztiarrerako eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleekin esku hartzeko prozedurak garatzea.
- Eskola-absentismoa murriztea.
- Konpetentzien hasierako mailan ikasleen ehunekoa murriztea.
- Ikaskuntza-ingurunea hobetzea: erresilientzia eta hazkunde-mentalitatea.
- Egoera zaurgarrian dauden ikasleen agentzia edo ahalduntzea hobetzea.
- Hezkuntza-sisteman jarraitzea edo irautea.

ERAKUNDEAREN JARRERAK jarduketa-esparruaren helburuak:

- Ikastetxean bizikidetza positiboa bultzatzea.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuan gogobetetasun-maila egokia lortzea eta mantentzea.
- Antolamendu- eta metodologia-aldaketak ezartzea. Aldaketa horiek ahalbidetu behar dute ikasleen banakako jarraipena egitea, beren konpetentziak gara ditzaten, eta hezkuntza-premiei ikuspegi inklusibotik erantzutea, gero eta curriculum-eredu konpetentzial eta parte-hartze handiagootarantz aurrera eginez.
- Irakasleek ikasle guztiengan itxaropen positiboak izan ditzaten lortzea eta horiei eustea.



- Hezkuntzaren arloko esku-hartzea antolatzeko eta kudeatzeko ereduak garatzea, planteamendu inklusibo batetik abiatuta. Planteamendu horrek erantzun egin behar dio ikasle guztien aniztasunari, eta ikasle horien sarbidea, parte-hartzea eta ikaskuntza bermatu behar ditu.
- Ikasleen ikaskuntza-prozesuan parte hartzen duten ikastetxeko profesionalen koordinazioa eta talde-lana hobetzea.
- Ikastetxeen ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntzaren kultura sustatzea.

IRAKASTEKO ETA IKASTEKO PROZESUAK jarduketa-esparruaren helburua:

- Oinarrizko kompetentziak eskuratzeko oztopoak, zailtasunak eta ikasteko beharrak goiz antzematea.
- Hezkuntzan esku hartzeko eredu inklusiboak garatzea, funtsezko kompetentziak lortzeko eraginkorrenzat egiaztatu diren metodologia aktiboak eta partaidetzakoak erabilita eta IKTen erabilera bultzatuta (ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA).
- Konpetentzia sozioemozionalen lana eta garapena areagotzea, hezkuntza integrala sustatzeko.
- Ebaluazio-estrategiak eta -tresnak sistematizatzea (autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa). Horiek ebidentziak eman behar dituzte ebaluazio eraginkorra egiteko eta etengabeko hobekuntza ahalbidetzeko.
- Plangintzaren arloko aurrerapenak eta lorpenak sendotzea dokumentu lotesle bidez (ICP...).

IKASTETXEA ETA HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOA Jarduketa-esparruaren helburuak:



- Zuzendaritza-taldea lidergo pedagogikoan eta gainerako irakasleak programaren helburuak lortzeko beharrezko gaitasunetan trebatzea
- Hezkuntza formala, ez-formala eta informala tarteko helburuen zerbitzura integratzea.
- Ikastetxearen eta ingurunearen arteko koordinazioa hobetzea, eta inguruneak ikastetxearen eskura jartzen dituen baliabideen erabilera



optimizatzea, programaren helburuak efizentziaz eta eraginkortasunez lortzeko.

- Inguruneko eragileekin (udalekin, elkarteekin, ESlekin...) lankidetzan aritzea, ikasle guztientzako hezigarritasun-baldintza egokiak bermatzeko.

Eremu guztietan zeharkako helburutzat hartuko da palanka estrategiak aplikatzea.

Hezkuntza-jarduketak **palanka-estrategia (PE)** deitutakoetan zehaztuko dira. Eraldaketa-prozesu global bat dinamizatzeko ikastetxe batek ezartzen duen ekimena da PEa. Ez da kudeaketaren, metodologiaren edo curriculumaren alderdi zehatz bat jorratzera edo konpontzera bideratutako ekimen puntual bat. Palanka-estrategiak ikastetxearen beraren analisisan hautemandako beharrian batetik sortzen dira, eta helburu batzuk lortzeko lan egiten dute. Hortaz, estrategiak estali egin behar du hobekuntza-plan estrategikoaren esparruan ikastetxearen bilakaerarako giltzarri gisa hautemandako alderdi bat. Hona hemen PEaren adibide batzuk:

- Ikastetxeak planifikatutako estrategia/ekintza bat, laguntza- edo errefortzu-sistema ordutegi akademikoan (eskola-orduetan edo ordu osagarrietan) antolatzeko.
- Ikastetxearen eta familien arteko komunikazio-prozedura eraginkorra, ikasle guztientzat eta maila guztietan hezteko baldintzak bermatzeko behar den informazioa azkar emango duena.
- Ikastetxearen inguruneko erakunde publiko eta pribatuekiko harreman-sarea, ikasle guztien onurarako partekatu daitezkeen baliabideak aprobetxatzeko.

PEaren kontzeptu berria argitzeko, programaren jarduketa-esparruekin lotutako zenbait adibide azaltzen dira II. eranskinean.



P PROGRAMA-KONTRATUAREN EZAUGARRIAK ETA GARAPENA

Programa-kontratu baten helburuak eta ezaugarriak honako hauek dira:

- a) Kudeaketa-autonomia bermatzea, alderdien erantzukizunak eta konpromisoak argi eta garbi zehaztuta.
- b) Helburua zehaztea eta erabakitzea zein erabaki dauden ikastetxearen mende eta zein dagozkion Hezkuntza Sailari.
- c) Hobekuntza-plan estrategiko bat ezartzea, ikastetxeko zuzendaritzak helburu kuantifikagarriak lortzeko konpromisoa har dezan. Horixe da funtsezko ezaugarria, helburu horiek aukera ematen baitute kudeaketaren eta programa-kontratuaren eraginkortasuna ebaluatzeko.

Programa-kontratua **hiru fasetan** garatzen da, eta gogoeta-ekintzako prozesu bat abiarazten du ikastetxean. Horrela, fase bakoitza planifikatzeko, oinarri hartuko dira aurreko fasean egindako jardueren ebaluazioa eta, ondorioz, hobekuntza-proposamenak. Ikastetxeek hiru ikasturte dituzte fase horiek gainditzeko eta eskola-arrakastako helburuak lortzeko.

1. FASEA: 2021-2022 ikasturtea

- **Ikastetxean programaren arduraduna hautatzea** (*Eraldatzen programaren arduraduna*).
- **Ikastetxearen diagnostikoa egitea** alderdi hauek, besteak beste, kontuan hartuta: hezkuntza-inklusioa, estrategia metodologikoak, bizikidetza positiboa, aniztasunarekiko erantzuna (laguntzen antolaketa, irakaskuntza partekatua...), ebaluazioaren prestakuntza-orientazioa, familien parte-hartzea, inguruneko beste eragile batzuekiko harremanak/aliantzak...
- Jarraibide horiek garatzeko behar diren **hobekuntza-ildoak identifikatzea** eta irakasleen-profilak diseinatzea.
- Hiru urterako ikastetxearen **hobekuntza-plan estrategikoa eratzea**. Plana bat etorriko da ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta zuzendaritza-proiektuarekin.



- **Palanka-estrategien Plana zehaztea. 22-23 ikasturterako egin beharko da.**
- Programari lotutako ikastetxearen **prestakuntza-plana** diseinatzea eta garatzea.
- Aniztasunari erantzuteko eta indartzeko gutxienez palanka-estrategia bat garatzen hastea edo berarekin jarraitzea, honako bi hauen artean (ikus II. eranskina):
 - o *Ikasle eta familientzako hobekuntzarako eta hezkuntza-arrakastarako indartze-jarduerak.*
 - o *Bizikasi ekimena.*
- **Eraldatzen ikastetxeen sarea sortzea.**
- Hobekuntzarako **Plan Estrategikoa** Hezkuntza Sailari **aurkeztea.**
- Hezkuntza Sailari 22-23 ikasturterako egin beharreko **Palanka Estrategien Plana aurkeztea.**

Plan horretan jasotako jarduerak kudeaketa-eredu bideragarriak eta iraunkorrak sustatzen lagundu beharko dute, ikastetxeek beren ohiko dinamikan beren gain har ditzaten.

2. FASEA: 2022-2023 ikasturtea

- Eraldatzen arduraduna: Pertsona horrek ikastetxean egonkortasuna duen irakasle bat izan beharko du. Bere lanaldiaren 1/3 libre izango du programarako, eta astegun bat erreserbatu beharko du, geroago zehaztuko dena, irakaskuntza-kargarik gabe Eraldatzen sarearen koordinazio-lanetarako.
- Ikastetxea hobetzeko plan estrategikoa garatzen hastea, fase honetarako aurkeztutako jarduketaren arabera.
- Fase honetan, ikastetxeak jarduketa bakoitza berrikusi eta baloratu beharko du, horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- Fase honi dagozkion jarduketak amaitu eta ebaluatu ondoren, hurrengo faserako hobekuntza-plan estrategikoa gaurkotuko da.

3. FASEA: 2023-2024 ikasturtea

- Klaustroan baloratu eta adostutako aldaketa-proposamenak sistematizatzea eta sendotzea (Plan Estrategikoa).
 - o Prozesuaren, hezkuntza-jardunbidearen eta ikasleen emaitzak baloratzea.





- Hobekuntza-plan estrategikoa ikastetxeko dokumentu estrategikoetan txertatzea: IHP, ICP, AJA, bizikidetza-plana...

Fase honen helburua da “*ikastetxearen planteamendu bakar*” bat lortzea. Planteamendu horren bidez, ikastetxeetan antolamendu-neurriak hartzea dakarten jarduketak gauzatuko dira. Aurreko faseetan hasitako proiektukako lanari jarraipena emango zaio.


Hiru ikasturteak amaituta, ikastetxeek arreta berezia jarriko dute **jardunbide egokiak zehaztu eta garatzen**. Jardunbide horiek behar bezala dokumentatu behar dira, eta beste ikastetxe batzuei eredu eta esperientzia gisa balioko diete. Proiektukako lana sendotuko da familien parte-hartzean eta inplikazioan eragingo duten jarduketekin, baita inguruneko erakunde, instituzio eta entitateekiko lankidetzaren ere, interakzio- eta koordinazio-sareak ezarrita. Argi eta garbi jaso beharko du aurreikusitako jarduketaren iraunkortasuna, horiek “ikastetxearen kulturaren” parte izaten lagundu dezaten programa amaitu ondoren.

Jarduketak garatzeaz gain, beren parte-hartzea amaitzen duten ikastetxeek **mentorizazio-lanak** egin ahal izango dituzte beste ikastetxe batzuekin, horiek aholkatuta eta autoebaluazio-prozesuan, hobekuntza-planaren diseinuan eta jarduketaren zehaztapenean lagunduta.



ARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Eraldatzen programaren antolaketa organigrama honen bidez egituratuko da:



SAILA:

Batzerde estrategikoa

ERALDATZEN ekimen instituzionaleko programa bat da, Hezkuntza Sailburuordetzak bultzatua batzerde estrategiko baten bidez. Honako hauek osatzen dute batzerde estrategikoa:

- Hezkuntzako sailburuordea.
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria.
- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria.
- Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria.
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako zerbitziburua.
- Ikuskari nagusia.
- Hezkuntza Saileko aholkularia.
- ISEI-IVEIko zuzendaria.



Batzorde horren eginkizunak honako hauek dira:

- Estrategiaren betetze-mailaren jarraipena egitea (*Eraldatzen programa*).
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioarekin koordinatzea Proa+ programa garatzeko.
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioak deitutako koordinazio-bileretan parte hartzea.
- Batzorde Teknikoa osatuko duten pertsonak hautatzea eta harekin koordinatzea.
- Batzorde teknikoaren eta *Eraldatzen* sarearen eginkizunak zehaztea.
- Programaren aholkularitza-, jarraipen- eta ebaluazio-eredua zehaztea.
- *Eraldatzen* programaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Batzorde teknikoa

Proposatutako helburuak lortzeko moduan programaren garapena bultzatzeko, Batzorde estrategikoak batzorde tekniko bat sortuko du, Batzorde estrategikoaren bi ordezkari koordinatuta.

Hauek dira Batzorde teknikoko kideak:

- Berritzeguneko hiru aholkulari.
- Ikuskari zentral bat.
- Hezkuntzako hiru ikuskari.
- ISEI-IVEIren ordezkaria.
- Batzorde estrategikoaren bi ordezkari. Hasierako faseetan koordinatzaile gisa parte hartuko dute.
- Premien arabera, adituengana joko da.

Batzorde horren eginkizunak honako hauek dira:

- Programaren garapen orokorra planifikatzea hiru ikasturteetarako.
- *Eraldatzen* sarea antolatu, dinamizatu eta kudeatzea:
 - o *Eraldatzen* sarearen bileren egutegia ezartzea, hilean behin.
 - o Sarearen bileren edukia diseinatzea.
 - o Sarearen bilerak dinamizatzea.
 - o Sarea osatzen duten ikastetxeen komunikazio, koordinazio eta lankidetzarako komunitate birtual bat sortzea, materialak eta esperientziak partekatzeko espazio gisa balio dezan.
 - o *Eraldatzen* programaren arduradunek proiektuaren fase bakoitzean ikastetxeetan egin beharreko zereginak diseinatzea eta planifikatzea, eta haiei laguntza eta aholkularitza eskaintzea.



- Ikastetxe bakoitzeko *Eraldatzen* programaren arduradunak aholkatzea, laguntzea, prestatzea eta gainbegiratzea.
- Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak, orientabideak eta baliabideak prestatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzarekin koordinatzea parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko programaren jarraipen- eta ebaluazio-prozesuan.
- Prestakuntza-plan espezifiko bat egitea Batzordeko kideentzat.
- Ikastetxeek aldi bakoitzean bete beharko dituzten zeregin zehatzak diseinatzea.
- Batzorde estrategikoari programaren garapenari eta emaitza partzial eta globalei buruzko informazioa ematea. Horretarako, programaren jarraipen- eta ebaluazio-prozesuari buruzko memoria egingo du, baita lortutako emaitzei, jardunbide egokien identifikazioari eta antzemandako hobekuntza-esparruei buruzko txosten bat ere.

Hezkuntza Ikuskaritzaren gainbegiratze- eta ebaluazio-lana

Ikastetxeko erreferentziako ikuskariak programaren jarraipena eta ebaluazioa egingo du bere jarduketaren arloan eta ikastetxearen ikuskapenaren barruan. Lan hori *Eraldatzen* programaren arduradunarekin eta ikastetxe bakoitzean ezarritako talde eragilearekin koordinatuta egingo da.

ISEI-IVEIren ebaluazio-lana

Ebaluazio-planak "jarraipen-eskema" bat du, adierazleekin. 5 adierazlek definitzen dute jarraipena.

Adierazlea	Iturria
Hasten, jarraitzen, eteten duen ikasle-kopurua	Ikasleen datuak
Ikaskuntzaren emaitzak	Ikasleen oharrak
Hasierako mailako ikasleen ehunekoa	Ebaluazio diagnostikoa
Ikaskuntza-ingurunea: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen erresilientzia - Ikastetxeak egoera zaurgarrian dauden ikasleekiko duen sentsibiltatea 	Hasierako eta amaierako galdetegia ikasleei eta irakasleei



IKASTETXEAN:

Ikastetxeak, unitate gisa, aukera ematen du ikasleekiko esku-hartzean hezkuntza-ildo bat bermatzeko, eta bide batez irakasleak ikastetxeko proiektuekin duten lotuta bideratzeko Profesionalen koordinazioari eta barne-koherentziari esker, kanpoko eragileekiko lankidetzaz ezarri ahal izango da.

Programa honetan planteatzen den aholkularitza eta jarraipena ikastetxeetan aldaketarako barne-gaitasuna sortzera zuzendu behar da, eta, era berean, ikasleen ikaskuntzen emaitzetan eragina izatea izan behar du helburu nagusitzat.

Era berean, ikastetxeen arteko **lankidetzaz sareak ezartzera** bideratu behar da aholkularitza. Izan ere, ikastetxeen artean ezagutza eta esperientziak trukatzeko etengabeko ikaskuntzarako formula berriak sortzen lagun dezake.

ERALDATZEN sarea

Sare honek bere bilera-egutegi propioa ezarriko du. Hezkuntza Sailburuordetzak sortutako talde teknikoak dinamizatuko du sarea.

Prozesuan zehar, jarraipena eta gainbegiratzea *Eraldatzen* sarearen / sareen bidez egingo da, batez ere. Sarearen aldizkako bileretan, parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko *Eraldatzen* programaren arduradunak bertaratuko dira. Bilera horiek lagungarriak izango dira arduradunak prestatzen laguntzeko, baita *Eraldatzen* programaren arduradunak ondoren bere ikastetxean egin beharko dituen jarduketak planifikatu, bultzatu, ezarri, babestu eta ebaluatzeko ere. Sareko aholkularitza mota horren helburua parte hartzen duten ikastetxeetako *Eraldatzen* programaren arduradunak ahalduntzea baino ez da, beren ikastetxeetan katalizatzaileak izan daitezkeen alderdi hauen inguruko gogoetaren bidean: beren jardunbidea, lan-ildoen plangintza (beren lehentasunetan oinarrituta), eta eraginkortasun txikiagoko lan-ildoak birbideratzeko eta arrakastatsuenak sustatzeko ebaluazioa.

Sarea hilean behin bilduko da gutxienez.

Eraldatzen programaren arduraduna eta ikastetxe barruko talde eragilea

Era berean, ikastetxe bakoitzak egokitzat jotzen duen koordinazio-egitura erabiliko du bere programaren eta hobekuntza-plan estrategikoaren jarraipena egiteko, eta egitura hori erabiliko du programaren talde eragile gisa. Nolanahi ere, *Eraldatzen* programaren arduradunak talde horretan parte hartuko du, eta programaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko alderdiak zuzenduko ditu.

Koordinazio-egitura horrek, *Eraldatzen* programari dagokionez, honako eginkizun orientagarri hauek izango ditu:

1. Emandako informazioan oinarrituta, akordioa egikaritzearen jarraipena eta ebaluazioa egitea.



2. Palanka-jardueren aplikazio-maila, egikaritze-kalitatea eta eragin-maila aztertzea, baita aurreikusitako adierazleen bidez ezarritako ikastetxeko emaitzen lorpena ere.
3. Batzorde teknikoari hurrengo ikasturterako baliabideak hornitu edo atxiki ditzan proposatzea.
4. Alderdi sinatzaileen arteko akordioetan eta helburuetan egokitzat jotzen diren aldaketak proposatzea.
5. Lehen aipatutakoa Batzorde teknikoaren esku jarriko duen txosten batean jasotzea.
6. Arbitrajea, akordioa interpretatzean zalantzarik izanez gero.

Akordioan ezarritako emaitzen adierazleetan lortutako balioa ziurtatu beharko du ikastetxeak, eta Batzorde teknikoak eskatzen dion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Ikasturte bakoitza amaitzean, ikastetxeak plan estrategikoa aplikatzean lortutako garapenaren eta emaitzen ebaluazioa jasoko du Urteko Memorian, eta hezkuntza-komunitateari horren berri emango dio, plan horretan ezarritako mekanismoen arabera.

Ikastetxeak konpromisoa hartzen du, ikasturte bakoitza hasi aurretik, hurrengo ikasturterako planaren aplikazioa eta autonomia- edo berezitasun-marjinak zehazteko eta adosteko.



A

LDERDIEN KONPROMISOAK

Ikastetxeen konpromisoak

Oro har, programan parte hartzen duten **ikastetxe** guztiek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Ikastetxean egonkortasuna duten irakasleen artean *Eraldatzen* programaren arduradun bat izendatzea, gutxienez lanaldiaren 1/3ko dedikazioarekin, honako eginkizun hauek betetzeko:
 - a. Ikastetxean programa dinamizatzea.
 - b. Ikastetxean zehaztutako talde eragilearen bilerak zuzentzea.
 - c. *Eraldatzen* sarearen aldizkako bileretan parte hartzea, baita antola litezkeen prestakuntza-saio espezifikoetan ere.
 - d. *Eraldatzen* programako talde teknikoko arduradunekin harreman arina izatea.
 - e. *Eraldatzen* sareak proposatzen dituen ekintzak ezartzea, ikastetxeko talde eragilearekin koordinatuta.
 - f. Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza diseinatzen, kudeatzen eta ematen laguntzea.
 - g. Ikastetxean ezartzen diren palanka-ekintzak tutorizatzea.
 - h. Administrazioak eskatzen dituen datuak biltzea eta ematea.
 - i. Programa honetara bideratutako partidaren kudeaketa ekonomikoan laguntzea (fakturen kontrola, ordainketen frogagiriak...).
2. Programaren talde eragile gisa jardungo duen ikastetxearen koordinazio-egitura zehaztea, *Eraldatzen* programaren arduradunaren gidaritzapean, programaren jarraipena bultzatu, dinamizatu, sustatu eta egiteko helburuarekin.
3. Hobekuntzarako plan estrategiko bat diseinatu, aplikatu, jarraitu eta ebaluatzea, ikastetxearen diagnostiko orokor batetik abiatuta eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan. Plan estrategiko hori akordioari erantsiko zaio diseinatzen den unean.
4. Plan Estrategikoa hedatzea, hura palanka-estrategien planaren ikasturte bakoitzean zehaztuta.
5. *Eraldatzen* sarean eta bertan zehazten den lan-planean bete-betean parte hartzea.



6. Programa ikastetxearen ohiko funtzionamenduan sartzea, hezkuntza-komunitateak partekatutako eta bere gain hartutako proiektu gisa.
7. Programan aurreikusitako jarduketan aldizkako jarraipena egitea, eta lortutako emaitzak eta hobetu beharreko ahuleziak dokumentu bidez jasotzea.
8. Programaren ebaluazioa egitea aurreikusitako ekintzei lotutako ebaluazio kuantitatiboen adierazleetan oinarrituta; lortutako emaitzak eta antzemandako ahuleziak dokumentu bidez jasotzea; eta urtero kontuak ematea, behar diren datuak emanda, Hezkuntza Sailean horretarako ezarritako batzordearen aurrean.
9. Erreferentziako ikuskariarekin lankidetzan aritzea programaren jarraipenean eta ebaluazioan
10. Behar diren datu guztiak ematea, baita programaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea ere.

Hezkuntza Sailaren konpromisoak

1. Ikastetxeei lagun egitea eta babesa ematea beren hobekuntza-plan estrategikoa aplikatzean. Plan horrek ikastetxearen beharrei erantzun die, eskola-emaitzetatik abiatuta eta ikuspegi inklusiboaz, eta bildu egingo ditu ikastetxeek parte hartzen duten plan, programa edo proiektuen ildo estrategikoak barne hartuko ditu, ikastetxe bakoitzak plan estrategiko bakarra izan dezan.
2. Ikastetxeko zuzendaritza-taldee, irakasleei eta beste profesional batzuei kalitatezko prestakuntza ematea.
3. Ikastetxeen sareko lana sustatzea, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko eta ikastetxeetan garatzen diren jardunbide egokiak hedatzeko.
4. Adostutako berezitasunak eta/edo autonomia-marjina gehigarriak errespetatzea.
5. Adostutako material gehigarriak ematea.
6. Programaren ebaluazio orokorra egitea.

Hezkuntza Sailak ikastetxeko zuzkidurei emango die lehentasuna horiek bere plan estrategikoaren garapenari eragiten diotenean. Ikastetxeak programan aurreikusitako edozein gastutara bideratu ahal izango du Hezkuntza Sailaren finantzaketa, indarrean dagoen legeria eta aurrez ezarritako prozedurak errespetatuz.



**I. ERANSKINA: 2021-2024 AKORDIOA, PROGRAMA-KONTRATU FORMATUAN,
IKASLE GUZTIEN HEZKUNTZA-ARRAKASTARAKO ERALDATZEN
PROGRAMAREN ESPARRUAN**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsaila

Zentroaren kodea:

Izena:

Herria:



2021-2024 AKORDIOA, IKASLE GUZTIEN HEZKUNTZA-ARRAKASTARAKO, ERALDATZEN PROGRAMAREN ESPARRUAN

PARTE-HARTZAILEAK

Begoña Pedrosa Lobato, Hezkuntza Saileko Hezkuntzako sailburuordeak

izen-abizenak(e)k, ikastetxearen izena ikastetxeko zuzendariak

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA EMATEN DUTEN HEZKUNTZA SAILAREN MENDEKO IKASTETXE PUBLIKOENTZAKO 2021-2024 Eraldatzen PROGRAMA-KONTRATUA dokumentuan ezarritakoaren arabera,²

ADOSTU DUTE

Aipatutako dokumentuan zerrendatzen diren akordioak eta konpromisoak aplikatzea.

Akordio hori deuseztatu ahal izango da alderdietako batek bere gain hartutako itunak eta konpromisoak betetzen ez baditu, edo esanbidezko eta elkarren arteko akordio bidez.

Ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren xx(e)(a)n

izen-abizenak, sailburuordea	Hezkuntza Saileko	ikastetxearen izena ikastetxeko zuzendari titularra
---------------------------------	----------------------	---

² Ebazpena, 2021eko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako Estatu Idazkaritzarena, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, 2021eko aurrekontu-ekitaldirako onartu egiten dira hezkuntza-komplexutasun bereziko ikastetxeetan hezkuntza orientatzeko, aurreratzeko eta aberasteko lurralde-lankidetzarako programara (PROA+ programara) bideratuta dauden eta autonomia-erkidegoek kudeatzen dituzten kredituak banatzeko irizpideak eta lurralde-banaketzarako proposamena, "Hezkuntza-sistema modernizatzea eta digitalizatzea, 0-3 urtekoen hezkuntza goiztiarra barne" 21. osagaiaren esparruan, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruan.



II. ERANSKINA: PALANKA-ESTRATEGIAK

1.- Jarduketa-esparrua: egoera zaurgarrian dauden ikasleak

Helburua da ikasle guztien hezkuntza-arrakasta lortzea, batez ere kalteberatasun handieneko egoeran dauden gainean jardunda. Horregatik, programaren xede diren lehentasunezko ikasle horiek detektatu behar dira, eta kontuan izan behar da, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz sortutako egoera sozioekonomikoa dela-eta, atzean utzi behar ez ditugun kalteberatasun berriakagerian geratu direla edo sortu direla.

Horretarako, funtsezkoa da identifikatzea eta objektibatzea hezkuntza-arrakasta hori lortzeko oztopo izan daitezkeen premiak; familia kalteberetakoak pobrezia-arriskuan daudenetakoak edo sozialki estigmatizatuta daudenetakoak izateagatik baztertuta geratzeko arriskuan dauden ikasle taldeen berezko premiak; premia asistentzialak, eskola-arlokoak nahiz sozioemozionalak; hezkuntza-laguntzako premia espezifikokoak (HLPE) dituzten ikasleei edo hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasleei zuzendutakoak. Komenigarria da, halaber, haien interesak eta indarguneak ezagutzea, haien ikaskuntzak eta hezkuntza-arrakasta erraztuko dituen laguntza-estrategia bat ezartzeko.

1.1. Hezkuntza-baldintzak lortzeko eta ziurtatzeko jarduketak

Beharrezkoa da ikasleen profila ezartzea, batez ere baztertuak izateko arriskuan daudenena (haien ezaugarriak, inguruabarrak eta premiak), eta horien jarraipena egitea. Kasu horietan, irakasle tutoreen figura funtsezkoa da, orientazio-taldeen laguntzarekin, guztien artean zehazteko nola konpondu eskola-arrakasta zailtzen duten oztopoak. Xede-ikasleentzako laguntza, orientazioa eta jarraipena.

Palanka-jardueren adibide batzuk honako hauek izan daitezke³:

- Familiak prestatzea (HH, Lehen Hezkuntza, DBH).
- Familiak eskolara, familien eskola (HH eta Lehen Hezkuntza).
- Oztupoak ebaluatzea.
- Prestakuntzako eta familien partaidetzarako lantegiak.
- Eskola-liburutegien irekiera eta jarduera integralak, hala nola ikaskuntzarako espazio inklusiboak, jakintza partekatuak uztartzea eta eraikitzea ahalbidetzeko.
- Emozioak lantzeko jarduerak.
- Jarduketak inguruko erakundeekin.

³ PROA+ CATÁLOGO MEFP Y CCAA DE ACTIVIDADES PALANCA CURSO 2021/22 dokumentuaren proposamenak barne hartzen dira. Dokumentu hori ikastetxe guztientzat eskuragarri jarriko da.



1.2 Ikaskuntza-zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko jarduketak

Xede-ikasleentzako laguntza, orientazioa eta jarraipena funtsezkoa izango da. *Palanka-jardueren adibide* batzuk honako hauek izan daitezke:

- Banakako tutoretza.
- Eskuz esku lan eginez hobetzeko: banakako tutoretzak.
- Berdinen arteko tutoretza, EIT (HH, Lehen Hezkuntza, DBH).
- Eskola-mentoretza (HH, Lehen Hezkuntza eta DBH).
- Orientazio-taldeen laguntza, baita beste profesional batzuen parte-hartzea ere, hala nola komunitate-zerbitzuetako irakasle teknikoena, gizarteratzaileena, gizarte-hezkuntzako bitartekariena, etab. Akordio pedagogikoa edo hezkuntza-konpromisoa: HLPE ikasleen eta porrot egiteko arriskuan daudenen hezkuntza-arrakasta errazteko baliagarria izan daitekeen tresna bat da akordio pedagogikoa edo hezkuntza-konpromisoa. Izan ere, horietan ikaslea da ardatza, nahiz eta familiak, eskolak eta, egoki iritziz gero, hezkuntza-inguruneak ere esku hartu behar duten. Helburua da finkatzea ikasle, familia eta eskola bakoitzaren testuinguruan kokatutako helburu eta konpromiso espezifikoak eta garrantzitsuak.
- Absentismo-plana (Lehen Hezkuntza, DBH, BATX, LH).
- Lagunduz, beti hobetzen dugu: etapen trantsizioa.
- Hezkuntza-etapen arteko trantsizioa: lekukoa erortzen utzi behar ez dugun errelebo-lasterketa (Lehen Hezkuntza, DBH).
- Familien arteko laguntza-sarea (familiak, HH, Lehen Hezkuntza eta DBH).
- Elkarrekin, gure konpetentzia digitala hobetzen dugu: familia, ikasleak eta irakasleak (HH eta Lehen Hezkuntza).
- Ikasle etorkinei harrera egiteko eta ikasgelan integratzeko plana (Lehen Hezkuntza, DBH).
- Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako trantsizioa errazteko ikasgaiak integratzeko programa.
- Irakurketan esku-hartzeari erantzuteko eredua (HH eta Lehen Hezkuntzako 1. kurtsoa).
- Bikotean irakurtzen dugu.
- Ikasle eta familientzako hezkuntza-hobekuntza eta -arrakastarako indartze-jarduerak (Lehen Hezkuntza eta DBH).
- Eskola-liburutegiak dinamizatzea (HH, Lehen Hezkuntza, DBH).
- Eskolako liburutegia aktibatzen dugu eta komunitateari irekitzen diogu (Lehen Hezkuntza, DBH, BATX eta LH).
- Irakurmena indartuz: tutoretzapeko liburutegia (HH, Lehen Hezkuntza, DBH).
- Inguruneko hezkuntza-plana. Lagundutako ikasketa-lantegiak eta eskola-laguntza dibertsifikatua (Lehen Hezkuntza eta DBH).
- Edukiak sortzea (HH, Lehen Hezkuntza, DBH).
- Talde interaktiboak (Lehen Hezkuntza).



- Irakaskuntza partekatua (HH, Lehen Hezkuntza eta DBH).

1.2.1 Ikasleak ardatz dituzten palanka-jardueren adibide batzuk

- Tutoretza-eredua eta tutoretza-plana (TP) garatzea eta eguneratzea. Tutoretza eta ikasleen eta haien familien orientazioa ahalbidetuko duten jarraibideak eta tresnak ezartzea, arreta berezia jarrita hezkuntza-premien aniztasunari, familia-egoerei eta ikasleen esperientzia sozioemozionalei.
- Ikasle bakoitzarentzat berariazkoa izan behar duen akordio pedagogikoaren eredua diseinatzea.
- Familiak prestatzea eta sentsibilizatzea.
- Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen arteko koordinazioa bultzatuta, irakaskuntzen arteko trantsizioa erraztuko duten jarduerak.
- Bitartekaritza-plan bat diseinatu, aplikatu eta ebaluatzea.
- ...

1.2.2 Taldearekin lan egitean oinarritutako palanka-jardueren adibide batzuk

- Hezkuntza-indargarriak, eskola-ordutegiaren barruan edo eskolaz kanpoko ordutegian modu osagarrian egin daitezkeenak (horretarako inguruneko erakundeekin akordioak eta hitzarmenak ezar daitezke).
- Goi-mailako ikasleek lagun egitea.
- Curriculumeko jardura osagarriak eta curriculumaz kanpokoak (curriculum formala eta informala).
- Ikasleen interesak bultzatzeko eskolaz kanpoko lantegiak (robotika, zientzia, mugikorrak, mekanika...).
- ...

2.- Jarduketa-esparrua: Erakundearen jarrerak

Programaren planteamendua da ikuspegi berri bat ematea (ikasle guztien hezkuntza-arrakasta lortzeko helburu partekatu batzuk), ikasle ahulenengan arreta berezia jarrita. Ikastetxeetan ikuspegi hori ezartzeak kultura aldatzea eragin behar du, eta horrek berekin ekarri behar du hausnarketa-prozesu bat, prestakuntza eta lidergo partekatua garatzekoa, zuzendaritza-taldean nahiz irakasleen kalitatea hobetzekoa eta, jakina, Hezkuntza Ikuskaritzak eta laguntza-zerbitzuek lagun egitekoa. Ikastetxean jarrera positiboak zeharka garatzeko jarduketak dira.

Palanka-jardueren adibide batzuk:



- Ikasle guztien eskola-arrakasta posible deneko hipotesia aplikatzeko plana, irakasleak sentibilizatuta eta itxaropen positiboak sortzen dituzten metodologia berrietan prestatuta.
- Ikasteko giro inklusiboa garatzeko plana. Ikasleei modu inklusiboan arreta pertsonalizatua ematea ahalbidetuko duten baliabideak eta estrategiak erabiltzea.
- Hezkidetzeta-plana.
- Bizikidetzeta-plan adostua eta partekatua, hezkuntza-komunitateari haren diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan parte hartzeko aukera emango diona (Bizikasi ekimena).
- Ikastearen eta irakastearen gogobetetasunean aurrerapena indartzeko eta agerian uzteko plana.
- Ikastetxe-sareetan parte hartzea; beste irakasle batzuekin edo ikastetxeko taldeekin lankidetzan aritzea (sentsibilizazioa eta prestakuntza).
- Plan de acogida a alumnado y familias (EINF, EPRI y ESO)
- Ikaskuntza-kultura inklusiboa garatzea, orientazio-eredu berri baten bidez.
- Guztiok batzen ditugu (Lehen Hezkuntza, DBH eta BATX).
- Batzen gaituzten hitzak (Lehen Hezkuntza, DBH eta BATX).
- Ikaskuntza hobetzeko begirada emozionalak (Lehen Hezkuntza, DBH).
- Ebaluazio inklusiboa (HH, Lehen Hezkuntza, DBH).
- Denok ikasten dugu aniztasunarekin eta aniztasunetik. Egin bat eraldaketarekin (Lehen Hezkuntza eta DBH).
- Nire ikastetxean denok sartzten gara (Lehen Hezkuntza eta DBH).
- ZIRKULU-DENBORA (jardunbide leheneratzaileak) (etapa guztiak).

3.- Jarduketa-esparrua: irakasteko/ikasteko prozesuak

Funtsezko konpetentziak eskuratzea ezinbesteko faktorea da ikasle guztien eskola-arrakastarako bidean. Hezkuntza-arloan kalteberena denak eskuratze hori zailtzen duten oztopoei aurre egin behar die. Hain zuzen, horien gainean zuzenean eragin nahi du programak, aparteko kupoekin, behar bezala prestatutako begiraleen laguntzarekin eta/edo berdinen arteko lankidetzarekin, beste estrategia batzuen artean.

Palanka-jardueren adibide batzuk:

- Funtsezko konpetentziak (irakurtzeko ohitura, etab.) eskuratzeko zailtasunak eta oztopoak hautematea.
- IKT/IET/APT teknologien bidez (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak / ikaskuntzaren eta ezagutzaren teknologiak / ahalduztzeko eta parte hartzeko teknologiak), irakatsi eta ikasteko prozesuan gogobetetasun osoa lortzeko plana.



- Berdinen arteko ikaskuntza-jarduera inklusiboak: irakaskidetza eta eskola-orduetan eta eskola-orduetatik kanpo lagun egitea.
- Konpetentzia-curriculuma garatzeko ikastetxearen plana.
- Konpetentzia sozioemozionalak garatzeko eta aberasteko plana.
- Adierazpen artistikoa eta kulturala funtsezko konpetentziak eskuratzeko bitarteko gisa integratzea.
- Irakurketa-idazketa garatzeko plana.
- Garapen jasangarrirako helburuak garatzeko ikastetxeko plana, ikasleengan oinarritutako metodologiaren (erronken) bidez.
- Secuencias didácticas ODS (EPRI, ESO)
- Ikaskuntza kooperatiboa ikasgelan (Lehen Hezkuntza).
- Solasaldi dialogikoak (Lehen Hezkuntza, DBH, BATX eta LH).
- Autoebaluazio-prozesuak ikasleekin (Lehen Hezkuntza, DBH, BATX eta LH).
- Talde interaktiboak (Lehen Hezkuntza eta DBHn aplikatzeko den hezkuntza-eremuko palanka-jarduera).
- Plaken tektonika azaltzeko maketak diseinatzea, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza-metodologian oinarrituta (DBH eta BATX).

4.- Jarduketa-esparrua: ikastetxea eta Hezkuntza Administrazioa

Eraldatzen programaren sentsibilizazioa eta planteamendu instituzionala sustatu nahi dira. Horretarako, funtsezkoa izango da programaren arduradun-koordinatzailearen hasierako prestakuntza, aldaketaren beharra eta hobetzeko jarduketaren erronka ikus ditzaten, horiek hezkuntza-komunitatearen gainerakoarekin partekatuko baitituzte.

Aldaketaren kudeaketak hezkuntza-komunitatearen borondatea eta erantzunkidetasuna eskatzen ditu, baita Hezkuntza Administrazioaren laguntza ere.

Ikastetxea eta ingurunea kudeatzeko eta irakasle taldeen kalitatea eta egonkortasuna hobetzeko jarduerak eta konpromisoak. Beharrezkoa izango da prozesu jarraitu bat. Prozesu hori 2021-2022 ikasturtean hasiko da eta hiru urteko iraupena izango du.

4.1. Ikastetxe osoa ardatz duten jarduketak

- Aldaketaren kudeaketa. Gogoeta-prozesuak eta horiek abiapuntu duten egoeraren analisia (AMIA). Mapa estrategiko bat egitea. Horretarako, beharrezkoa da aldaketaren premiatik abiatuta ikastetxearen egoeraren diagnosis egitea eta hobetzeko plan estrategiko bat lantzea.
- Hiru urterako (2021-2024) hobekuntza-plan estrategikoa diseinatzea, eta ikastetxean funtzionatzen ari diren plan edo proiektu guztien jarduketak bertan txertatzea, plan bakar gisa funtziona dezan. Programako jarduketa guztiak ikastetxeko dokumentuetan argi eta garbi txertatzea.



- Profesionalen egonkortasuna eta kalitatea hobetzeko ikastetxearen ekintzak eta kudeaketa-konpromisoak (jarduera guztiei eragiten dien ezinbesteko baldintza).
- Dagoen ezagutzarako sarbidea erraztea eta, hortik abiatuta, palanka-jardueren alternatibak aztertzea (kostua/efizientzia). Parte hartzea eta programaren sareak baliatzea. Sortutako ezagutza ematea eta jasotzea. Barneko eta kanpoko komunikazio-plana diseinatzea. Ikastetxea ikusaraztea eta inguruneko jardueretan parte hartzea.

4.2. Giza taldearen eta haren kalitatearen kudeaketan oinarritutako jarduerak

- Irakasle taldearen egonkortasunera bideratutako jarduerak egitea. Ikastetxeko profesionalen harrera-, laguntza- eta garapen-plana.
- Ikastetxeko profesionalak lidergo pedagogikoan eta aldetaren kudeaketan prestatzeko plan bat egitea, aplikatzea eta ebaluatzea. Kanpoko aholkularitza modalitatea, beste ikastetxe batzuetara bisitatzea, gogoeta pedagogikoa, etab. barne hartuko ditu, ikastetxea eta irakatsi eta ikasteko prozesuak eraldatzeko, programa-kontratutik eratorritako premien, ikastetxearen hobekuntza-plan estrategikoaren eta programaren printzipio pedagogikoen arabera.
- Ezagutza partekatzeko aukera emango duten sareetan parte hartzea.

4.3. Baliabideen eta espazioen kudeaketarekin lotutako jarduketak

- Erabilgarri dauden espazioak ikuspegi inklusibo eta pedagogikoaz antolatzea.
- Eskolako liburutegia ikasteko gune gisa, non lekua baitagoen ikastetxeko proiektu guztiak eta informazioa hainbat euskarritan biltzeko, baita era guztietako desberdintasunak konpentsatzeko ere.
- Aldaketaren kudeaketa.
- Hezkuntza-sareak.
- Gure BHIaren irisgarritasun kognitiboa hobetzea (Lehen Hezkuntza, DBH).
- PROEDUCAR-HEZIGARRI (ikastetxearen mailan, ikastetxeko plan estrategikoarekin eta palanka-ekintzen planarekin lerrokatutako palanka-jarduera).
- Ikastetxeko prestakuntza-plana (etapa guztietako irakasleak).
- Espazio inklusiboak sortzea (hezkuntza-maila guztiak).
- Irakasleak hartzeko plana (etapa guztietako irakasleak).